


HEMEN AURKITUKO GAITUZU:

PASSEIG PERE III 18, 5^o3^a - 08241 MANRESA (BARCELONA)

T. 930 165 379 - INFO@LAFRAGATINA.COM

2017 KATALOGOEA



WWW.LAFRAGATINA.COM



INDEX

LO MULLARERO BILDUMA

ZUHAITZETAKO BIDEAK

IKUSTEKO BETAURREKOAK

ARTALDEA 

ESKERRIK ASKO! 

KIWI: TXORI ARRARO SAMARRA

EGUN BAT ITSASOAN

KARLITOS SUPER M

ANIMALIEN ERREGEA 

HARTZATXOA, JIRafa ZAHARRA ETA HARRIZKO PARETA

ORDULARI BAT BAINO EZ

UNERIK ONENA 



LO MULLARERO BILDUMA

Mertxika zuhaitzen artean paseatzen bezala gertatzen da bilduma honetara hurbiltzean: nekez eutsi diezaiokegu liburu bat hartu, ireki eta gozatzeko tentaldiari. Lo Mullarero bildumako fruituak album ilustratuak baitira, testuak eta irudiek elkar hartu eta istorio bera bi ahotsetara kontatzen duten liburuak.

Liburu artistikoak, zirraraz beteak eta dibertigarriak, partekatzeko eta opari egiteko ezin hobek. Amets egiteko sortuak.

21



ZUHAITZETAKO BIDEAK

TESTUA: **PEP BRUNO**
 IRUDIAK: **MARIONA CABASSA**
 ISBN: 978-84-942502-1-7
 BILDUMA: LO MULLARERO
 PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA
 PISUA: 400 G
 ORRIALDEAK: 36
 FORMATUA: 26 x 24
 HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU
 ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Haur batek eta haren aitona elkarrekin pasatuko dute arratsaldea. Bilobak zuhaitzera igo nahi du, baina iruditzen zaio ez dela gai izango. Laster ohartuko da, ordea, ez dela bereziki indartsua edo handia izan behar zuhaitzen gainera igotzeko: inurriak igotzen dira, sugandilak ere bai... Zuhaitz bakoitzak bere bidea du, eta batzuetan aski izaten da begiratzen jakitea eta pazientzia hartzea bidea agerian jar dakigun.

26



IKUSTEKO BETAURREKOAK

TESTUA: **MARGARITA DEL MAZO**
 IRUDIAK: **GURIDI**
 ISBN: 978-84-942019-9-8
 BILDUMA: LO MULLARERO
 PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA
 PISUA: 300 G
 ORRIALDEAK: 36
 FORMATUA: 16 x 22,5
 HIZKUNTZA: ES / EN / IT / PT / CA / GL / EU
 ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Karlitos haur txiki-txikia da, eta Inesi begira ematen du eguna. Ines neska garai eta polita da, denen arreta erakartzen duen, eta begiratu ere ez dio egiten Karlitosi. Mutikoak eginahalak eta bi egiten ditu neskatoak begira diezaion, baina alferrik: badirudi Inesentzat Karlitos ez dagoela hor. Egun batez itxaropena piztuko zaio: "ikusteko betaurrekoak" jarriko dizkiotela esan du Inesek eskolan, eta Karlitos sinetsita dago bien begiradek, azkenean, topo egingo dutela...

35



ARTALDEA

TESTUA: **MARGARITA DEL MAZO**
 IRUDIAK: **GURIDI**
 ISBN: 978-84-16226-04-7
 BILDUMA: LO MULLARERO
 PREZIOA: 15 IVA INCL. - 14,42 S/IVA
 PISUA: 400 G
 ORRIALDEAK: 40
 FORMATUA: 21 x 30
 HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU
 ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Oso erraza da ardia izatea. Hauxe bakarrik egin behar duzu: paseatu, jan, lo egin... paseatu, jan, lo egin... eta lo hartzen lagundu. Ez duzu pentsatu behar, nahikoa da gainetako egiten dutena egitea. Baina zer gertatzen da ardi bat arrastotik ateratzen denean? Bada... ardi beltz bihurtzen dela! Eta nola lortu 4. ardiak lo hartzen lagundu diezaión Mikeli?

CUATROGATOS FUNDAZIOAREN 2016 URTEKO SARIA (AEB)

ALBUM ILUSTRATU ONENAREN PLASTILINA & BLOGGERS SARIA (2015)

ALBUM ILUSTRATU ONENAREN SARIA 2014. URTEAN, MADRILGO LIBURU-SALTZAILEEN GREMIOAK EMANA

40

**ESKERRIK ASKO!**TESTUA: **CHARO PITA**IRUDIAK: **ANUSKA ALLEPUZ**

ISBN: 978-84-16226-11-5

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA

PISUA: 400 G

ORRIALDEAK: 32

FORMATUA: 26 x 24

HIZKUNTZA: ES / EN / IT / PT / CA / GL / EU

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Lan honetan, biloba batek hainbat galdera ditu amonari egiteko, eta hark ez du erantzunik. Izan ere, ez da beharrezkoa dena jakitea, dena ulertzea, dena aztertzea; askotan nahikoa da gozatzea, bizitzea eta, batez ere, eskertzea. Ipuin benetan ederra da *Eskerrik asko!*, isiltasunez betea. Narrazioa kolorez betetzen da Anuskaren ilustrazio delikatuarekin, eta testua zabaldu egiten da eta isilik egotera eta sentitzera gonbidatzen gaitu. Eta eskerrak ematera inguruan ditugun gauza ederrengatik, zeinak askotan, ohituraren ohituraz, oharkabean joaten zaizkigun.

46

**KIWI: TXORI ARRARO SAMARRA**TESTUA: **SUSANNA ISERN**IRUDIAK: **REBECA LUCIANI**

ISBN: 978-84-16226-17-7

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA

PISUA: 400 G

ORRIALDEAK: 32

FORMATUA: 26 x 24

HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU / EN

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Egun batez, gauza harrigarri bat kontatuko dio Saguak Kiwiri: "Aizu, Kiwi, esaten dute txoria zarela". "Txoria?", harritu zen Kiwi. "Nola izango naiz txoria?: ez dut lumarik eta hego handirik, ez dezaket hegan egin, nire ileak zizta egiten du eta nire mokoa luzea eta iletsua da...". Susanna Isern-en hitzek eta Rebeca Lucianiren ilustrazio paregabeek desberdintasunen garrantziaz hitz egiten digute. Ipuin batzuk behin eta berriz kontatzekoak izaten dira, neska-mutilek behin eta berriz izaten nahi izaten dituztelako. Hau ere horietakoa duzu, zalantzarik gabe.

60

**EGUN BAT ITSASOAN**TESTUA: **PAULA CARBONELL**IRUDIAK: **MARJORIE POURCHET**

ISBN: 978-84-16226-47-4

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 15 IVA INCL. - 14,42 S/IVA

PISUA: 400 G

ORRIALDEAK: 36

FORMATUA: 21 x 30

HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU / EN

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Maria eta haren ama itsasertzean daude arratsalde pasa, eta, bat-batean, neskatoak botila bat aurkituko du, barnean mezu bat daramana: «SOS. Laguntza behar dut, eta azkar». Hori irakurrita, Mariak, jakin-minez beteta, murgil egingo du itsasoan, hitz horiek olatu artetik nork bidali dizkion jakiteko asmoz. Apar eta gatz errimatuz idatzi du Paula Carbonellek kontakizun hau, eta Marjorie Pourchetek ilustratu du. Bien artean kontatu dute zein zoragarria den haurrek, jolasak eta irudimenak elkarrekin duten harremana.

72

**KARLITOS SUPER M**TESTUA: **MARGARITA DEL MAZO**IRUDIAK: **GURIDI**

ISBN: 978-84-16226-41-2

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA

PISUA: 300 G

ORRIALDEAK: 36

FORMATUA: 16 x 22,5


HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Ikusteko betaurreko berriekin maitasuna begi aurrean agertu ondoren, beti bezain ipurterre eta behatzaile izaten jarraitzen du Karlitosek. Abentura berri honetan, mandeulien hegaldia-ri begira dagoela, superheroia izan nahi duela erabakiko du. Nolako trajea izango ote du? Zer-nolako superbotereak erabiliko ote ditu? Margarita del Mazok eta Guridik kontatuko dizute hori guztia liburu honetan. Zatoz Karlitosekin.

ILLUSTRATION WEST 51 AUKERATUA

93



ANIMALIEN ERREGEA

TESTUA: **MIGUEL TANCO**

IRUDIAK: **MIGUEL TANCO**

ISBN: 978-84-16226-53-5

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA

PISUA: 400 G

ORRIALDEAK: 32

FORMATUA: 26 x 24

HIZKUNTZA: ES / CA / GL / EU

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Sabanako bizimodua gogorra da, baita animalien erregearentzat ere. Horregatik, egun batean, bizimodua erraztuko dioten legeak ematea erabakiko du lehoiak, lege arbitrario horiek besteengan zer-nolako eragina izango duten pentsatu ere egin gabe. Fabula dibertigarria da, aukera emango diguna hurrekin gogoeta egiteko boterearen eta horrek dakarren erantzukizunaren inguruan. Miguel Tanco ipuin sakon eta umoretsua idatzi du, eta ilustrazio bikainekin jantzi du, hainbat forma eta kolorerekin, sabanako argitasuna geure etxeetaraino ekartzeko.

96



HARTZATXOA, JIRAFAZAHARRA ETA HARRIZKO PARETA

TESTUA: **SUSANNA ISERN**

IRUDIAK: **BETANIA ZACARÍAS**

ISBN: 978-84-16566-01-3

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA

PISUA: 400 G

ORRIALDEAK: 32

FORMATUA: 26 x 24

HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU / EN

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Zoo bat eta, han, hartz txiki eta triste bat. Zorionez, auzoan duen jirafak alaitu egiten dizkio egunak kanpoko aldean, harrizko paretaren beste aldean, gertatzen den guztiaren inguruko istorioak kontatuz. Bizitzako hainbat egoeratarako egokitzeko moduko fabula da honako hau. Haur ginela kontatu zizkiguten ipuinen alegoria bat da, non mundu zoragarri bat irudikatzen genuen.

115



ORDULARI BAT BAINO EZ

TESTUA: **ROBERTO ALIAGA**

IRUDIAK: **AMREI FIEDLER**

ISBN: 978-84-16226-71-9

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA

PISUA: 400 G

ORRIALDEAK: 36

FORMATUA: 26 x 24

HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU / EN

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Marmotari ordulari bat egin diote opari urtebetetze egunean. Garrantzirik gabeko objektu bat dela pentsa dezake norbaitek, Mikak adibidez. Baina Marmotak adimen handiz erakutsiko du bere erlojua ez dela besterik gabeko erloju bat. Roberto Aliagak kontatzen digu fabula eder hau, Amrei Fiedler-en ilustrazio bikainekin, eta erakusten digu zein den gauzen egiazko balioa, ohar gaitetzen, gehienetan, gutxiago gehiago izaten dela.

208



UNERIK ONENA

TESTUA: **SUSANNA ISERN**

IRUDIAK: **MARCO SOMÀ**

ISBN: 978-84-16566-50-1

BILDUMA: LO MULLARERO

PREZIOA: 14,5 IVA INCL. - 13,94 S/IVA

PISUA: 400 G

ORRIALDEAK: 32

FORMATUA: 26 x 24

HIZKUNTZA: ES / IT / PT / CA / GL / EU / EN

ADINA: 4 URTETIK AURRERA

Urtxintxa larri dabil denboraz. Garrantzi handiko eskutitz bat heldu zaio eta lehenbailehen ailegatu behar du helmugara. Baina bidean basoko lagun asko aurkituko ditu, eta laguntza eskatuko diote denek. Eta baerak halako presa eduki... Zer egin halakoetan? Hobe izango da Susanna Isern-ek eta Marco Somà kontatzen badizute. Liburu aparta da, eta guztiak izango dute atsegin, hurrek bezala helduek ere.